



IKASTETXE ARTEKO MOBILIZAZIO-JARDUERA HARRERAREN ALDE ABESTI ETA DANTZA BATEN BIDEZ.

PROPOSAMENA

Bideoklip bat grabatzea proposatzen da. Bideoklip horretan zenbait talde eta ikastetxek hartuko dute parte, eta abesti bat dantzatuko dute, jatorria edozein dela ere, gure inguruan dauden pertsona guztien **HARRERAREN** alde egiten dugun apustua ikusarazteko.

Proposatzen dizuegun **abestia** SUAKAI taldeak egin du prozesu parte-hartzaile batean (testua osatzeko ideiak bildu dituzte eta musika sortzeko tailer bat egin dute). Prozesu horren emaitza izan da etxetik alde egiten duen eta hona iristean harreman eta laguntza zehatzak aurkitzen dituen pertsona baten bidaia islatzen duen abesti zoragarria.

Horrez gain, boluntarioen talde batekin koreografia bat landu da, gure dantzarako eredu izango dena (bideoa atxiki dizuegu).

Proposamen honekin bat egin dezazuen, **elkarrekin dantza egin, grabatu** eta zuen bideoa bidaltzeko taldeak sortzera gonbidatzen zaituztegu. Bideo horiek beste talde eta ikastetxe batzuetakoekin bildu eta **bideoklip bat prestatuko dugu**, zeinak jasotako grabazioen zatitxoak bilduko dituen. Bideoklip horrek HARRERAREN KULTURA sustatzeko dugun nahia erakutsiko du.

HELBURUA

1. **ABESTI** baten bidez HARRERARI buruzko hausnarketa egitea.
2. Harreraren aldeko DANTZA bat egiteko koreografia prestatzea.
3. Beste batzuekin bat egitea mobilizazio-jarduera batean, modu birtualean, HARRERAREN aldeko gure apustua ikusarazteko. (bideoklipa)

HARTZAILEAK

Proposamen hau adin guztietako pertsona guztientzat da, proposamenarekin bat egin eta HARRERAREN aldeko beraien apustua ikusarazi nahi duten guztientzat. (Egokitu ahal izango da, talde zehatzaren, adinaren eta ezaugarrien arabera).

JARDUERAREN GARAPENA

- Dantza entseatzen hasi **aurretiko lan-proposamena** .

Parte-hartzaileen adinaren arabera, zati bat gehiago sakondu ala sinplifikatuko da; baina, talde guztiekin egin beharko litzateke.

Elkarrekin pentsatu gure ustez zer den HARRERA. Ideia-jasa egin eta bakoitzak egin ahal duenaren arabera zehaztu; ohiko keinu sinpleenetatik hasi eta talde- edo erakunde-jardueretara.

Parte hartuko duten mobilizazio-proposamena argi azaldu.

- **Abestia:** Funtsezkoa da abestiaren xehetasun guztiak ondo ezagutzea. Zer esan nahi digun ulertzea.

Horretarako, abestiaren testua banatzea eta paragrafo bakoitza xehatzea proposatzen dizuegu. Eska diezaiekegu irudika dezatela bere istorioa kontatzen digun pertsona zein den eta nolakoa den. Abestiak transmititzen duen istorioa haien hitzekin kontatu dezatela.

Kontatu, marraztu, antzeztu... egin dezakete.

Kontu hauek komentatuko ditugu:

- Zein sentimendu transmititzen dizkigu testuak? Eta musikak?
- Zer dira, gure ustez, **lotura egitiak**?
- Gure ustez, zer esan nahi du leloak LURRETIK MILA METRORA HEGAN EGITEA esaten duenean?
- Zuen ustez, zer da ESNATZEAN BEGIAK ALTXATZEA, LORTURA EGIATIAK? Nola esango zenukete zuen hitzekin? Animatzen al zara antzezpenez txiki bat egitera?

- **Koreografia** musikaren erritmora gorputz-mugimenduen segida bat egitea da. Mugimendu horiek pentsatu egin dira eta entseatu egin behar dira.

Grabatutako koreografiaren bideoa bidaltzen dizuegu, eredu izan dezazuen eta lana erraztu diezazuen.

Ondo pentsatu behar da taldeko kideak nola banatuko ditugun espazio fisikoan.

Zatika entseatu dezakegu. Hasteko, leloa izan daiteke zatirik motibatzaileena.

Praktikatu koreografia borobildu arte eta azken aurkezpenerako eta grabaziorako konfiantza izan arte.

Ez izan zalantzarik eta aldatu eta zuzendu nahi duzuen, gustura sentitu arte.

- **Grabazioa.** Taldeak koreografia prestatu eta entseatu ondoren:
 - Bideo bat ahalik eta kalitatetik onenean grabatzea.
 - Igo ezazu zure ikastetxeko You Tube edo Vimeora, izenburu honekin: JARDUERA-HARRERA, zentroaren/taldearen izena eta Hashtag #nireikastetxeaharrerada #niretaldeharrerada
 - Bete [parte hartzeko formulario](#) hau, bideoaren esteka sartuta. (Inprimaki bat bete, igotzen den bideo bakoitzeko).
 - Grabazioek sareetan zabaltzeko baimena izan behar dute.
 - Bidaltzeko epea: ~~apirilaren 25era arte.~~ **Maiatzaren 5era arte**

Zalantzarik baduzu, jar zaitez harremanetan nirekin: a.urretavizcaya@alboan .org

- **Bideo klipa:** Jasotako bideo guztiak, gure mobilizazio-jardueraren emaitza izango den muntaia bat prestatuko da, parte hartu dutenek ezagut dezaten.

- **Hedapena:** klip bideoa aurkeztea proposatzen dizuegu, ikastetxean, taldean, eta sare sozialetan ahalik eta modu masiboenean zabaltzea. Ea birala izatea lortzen dugun!

IRAKASLEENTZAKO/HEZITZAILEENTZAKO IRADOKIZUNAK

- Garrantzitsua da dantza proposatu aurretik abestiaren mezuan sakontzea.
- Ondo legoke jarduera hori Gorputz Hezkuntzako eskoletan txertatzea eta a curriculum-jardueratzat hartzea.
- Beste pertsona, zentro eta talde batzuekin bat egiten dugun mobilizazio-jarduera bat dela azaltzea, eta dantza hori bera, gure ingurura iristen diren pertsonen harrera eta babesa emateko dugun interesa ikusarazteko, bideo bateratu baten parte izango dela azaltzea. Jende askok babestu nahi du harreraren kultura, ikastetxe eta talde batzuk ere egiten ari direla. Askok babestu nahi dugu harreraren kultura.
- Ikusgarritasuna ematea. Ikasmaila edo talde jakin batean bakarrik egiten bada, ikastetxe, talde edo erakunde osoak ezagutu beharko du jarduera hori, eta beste pertsona batzuk gonbidatu ahal izango ditu hura ikustera eta dantzatzera.
- Behin bideoklipa eginda, jarduera honekin bat egiten duten pertsona eta talde guztien grabazioekin, ahalik eta gehien mugitzera animatzen zaituztegu sare sozialetan

- ABESTIA

Vínculos sinceros

Nuevo día, quiero hablarte de una canción
cantaré desde el corazón.

Esta historia habla del miedo y del dolor,
y también de fuerza y superación.

-----INSTRUMENTAL-----

Adelante, empieza el viaje, vuela mi imaginación.
Ya no sé si es la mejor opción.

Siento que empiezo de nuevo
y quiero tu abrazo certero
Para poder...

**VOLAR A MIL METROS DEL SUELO
ALZAR LA VISTA AL DESPERTAR
VÍNCULOS SINCEROS**

**HEGAN
ZERUTIK EDONORA
EGUZKI IZPIEN ARTEAN
BIHOTZAREN BERORA**

**(VOLAR
DESDE EL CIELO HACIA DONDE SEA
ENTRE LOS RAYOS DEL SOL
AL CALOR DEL CORAZÓN)**

-----INSTRUMENTAL-----

Argi izpiak nere malkoen
Dardarak
leuntzen egunsenti honetan.
Txoriek bezala nik nahi dut...

**(Los rayos de luz suavizan el
temblor de mis lágrimas
En este amanecer.
Igual que los pájaros, yo quiero...)**

HEGAN

VOLAR...